



## AKTEA/17

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA  
(2023-06-27)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	O hikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2023-06-27 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:19
<b>Alkate-Presidentea:</b>	ORTUZAR BUTRON XABIER
<b>Batzordekideak:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE BILBAO SAN NICOLAS IKER
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023  
11:21:21

DOCUMENTO: 20230849846

Data: 28/06/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

## Aztergaiak

- 1.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 2.- San Martin kalea 7 zenbakiko 1A etxebizitza tasatua saltzeko eskaria onartzea.
- 3.- 154/2022 epaiaz berri ematea
- 4.- 155/2022 epaiaz berri ematea.
- 5.- 230/2022 epaiaz berri ematea.
- 6.- 254/2022 epaiaz berri ematea.
- 7.- 19/2023 epaiaz berri ematea.
- 8.- 20/2023 dekretuaz berri ematea.
- 9.- 139/2023 epaiaz berri ematea.
- 10.- Alkatetza dekretuen berri ematea.
- 11.- Eskari eta itaunak.

Alkateordeak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

### 1.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 2.- SAN MARTIN KALEA 7 ZENBAKIKO 1A ETXEBIZITZA TASATUA SALTZEKO ESKARIA ONARTZEA.

#### Xedea

San Martin kalea 7 zenbakiko 1A etxebizitza tasatua saltzeko \*\*\*822\*\*E NAN zenbakidunaren eskaria.

#### Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023  
11:21:21

DOCUMENTO: 20230849846

Fecha: 28/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0



Bakarra: 2023ko ekainaren 19an \*\*\*822\*\*E NAN zenbakidunak bere etxebizitza tasatua saltzeko baimen eskaria aurkeztu eban udalean.

### Argudioak

Lehenengoa: San Martin kalea 7 zenbakiko etxebizitza hori, 20.3 exekuzino unidateko 4. partzelan dagoan etxebizitza tasatua da.

2011ko azaroaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak, San Martin kalea 7 zenbakiko etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa emon eban. Kalifikazio hori iraunkorra da eta ondorioz, modu iraunkorren atxikita dagoz gehienezko eskualdaketa salneurri bateri eta udalaren aldeko lehentasunez erosteko zein atzera eskuratzeko eskubideari.

Honako hau da Bermeoko Udal Etxebizitza Tasatuak arautzeko Tokiko Ordenantzak xedatzen dauana:

#### ***1. artikulua.-Helburua eta ezarpen esparrua.***

1. Lurzoru eta Hirigintzako 2006/2 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian asmo horretarako aurreikusitakoa garatze aldera, honako tokiko ordenantzak xedetzat du, Bermeo udalerriko «Udal Etxebizitza Tasatuen» babes publikoko erregimen juridikoa ezartzea.

2. Bermeoko «Udal Etxebizitza Tasatuek» babestutako etxebizitza **kalifikazio iraunkorra** izango dute eta, ondorioz, **modu iraunkorren atxikiko zaizkie nola gehienezko eskualdaketa salneurri bati, hala lehentasunez erosteko zein atzera eskuratzeko eskubideen egikaritzeari**, finean, beraien xedea beteko ez balitz desjabetzeko modurik ere egongo litzatekeelarik.

#### ***11. artikulua.-Kalifikazioa eta erregistroan izena ematea.***

Bermeoko Udalak Jabetzaren Erregistroari jakinaraziko dio udal etxebizitza tasatuen Behin-betiko Kalifikazioa, egin ere, ukitutako ondasunetan delako izaera jaso izan dadin eta horrekin, egokien den eran erregistroan honakoak argitaratzeko eskubidea emate aldera, hots, batetik, **lehendabizi Udalaren edo Administrazio jardulearen eta, ezein kasutan, subsidiarioki Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldeko eroslelehentasun zein atzera-eskuratze** eskubideen berri emateko, eta bestalde, **ordenantza honetan ezarritakoari jarraiki gehienezko eskualdatze salneurri atxikita modu iraunkorren** geratzeko duten muga.

Bigarrena: Udalak edota subsidiarioki Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak etxebizitza hori ez badau eskuratzen, baimen izango leuke etxebizitza



saltzeko beti ere Bermeoko Udal Etxebizitza Tasatuak arauteko Udal Ordenantzak xedatutako baldintzak betetzen badira. Baldintzak honako honeek izango litzatekez:

### 1.- Salmentaren prezioa:

#### **15. artikulua.-Eskualdagarritasuna eta salneurriaren muga.**

1. Bermeoko Udal Etxebizitza Tasatuen bizien arteko bigarren edo geroagoko eskualdaketaren gehieneko salneurria, ondoko irizpideak aplikatuz eratorzen dena izango da:

a) Araudi Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuen (UETO) kasuan, prezioak ez dezake bigarren edo geroagoko eskualdaketa gertatzen den unean, Araudi Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzentzat indarrean legokeen gehieneko salneurriarekiko 2ko adierazlea gaindi. Sustapen pribatuko kasuan, izango da 2,2ko adierazlea erdiesterik.

b) Araudi Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuen (UETB) kasuan, prezioak ez dezake Erregimen tasatuko Babes Ofizialeko Etxebizitzentzat autonomia erkidegoaren araudiak ezarritakoa gainditu eta, halakorik ez balitz, ez du inola ere, bigarren edo geroagoko eskualdaketa gertatzen den unean, Araudi Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzentzat indarrean legokeen gehieneko salneurriarekiko 1.7ko adierazlea gaindituko.

2. Haatik, etxebizitzok azalera eskubide araudiari jarraiki lagatzen direnean, bigarren edo geroagoko eskualdaketatan zaindu beharreko gehieneko prezioa, hasierako eskuratzean ordaindutako hura izango da, Kontsumoko Prezioen Indizearen aldaketari so ezar dakioken eguneratzearekin, alegia.

I. Urtean 100eko 0,5 lehendabiziko 30 urtetan zehar.

II. Urtean 100eko 1 hurrengo 20 urtetan zehar.

III. Urtean 100eko 2,6 azkeneko urtetan zehar.

3. Higiezinean egin izan daitezkeen balizko hobekuntzen, besterentzearen salneurria handitu dezakete, beti ere, delako hobekuntzak honako xedeetarako baliagarri izan daitezten Udal Administrazioak aurrez onetsiak badira, beraien balioespena eta balio-galtzea finkatuz.

### 2.- Onuradunak bete beharreko baldintzak:

**5. artikulua: Araudi Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuen salneurriak eta egiaztatu beharreko diru-sarrerak.**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023  
11:21:21

DOCUMENTO: 20230849846  
Data: 28/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



3. Babes ofizialeko etxebizitzei buruzko euskal autonomiako araudian ezarritakoari jarraiki kalkulatu diren Araudi Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuen (UETO) onuradun edo jasotzaileen gehienezko batz besteko diru sarrerak, ez dira Araudi Orokorreko BOEk eskuratzeko indarrean dagoen gehienezko diru-sarrera zenbatekoaren 1,5eko (bat kakotx bost) adierazleaz gaindi igoko. Araudi Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuak (UETO) jaso asmo dituztenen gutxieneko batz besteko diru-sarrerak, ez daitezke etxebizitza tasatu autonomikoak erosi eta alokatzeko ezartzen diren gutxienezko diru-sarrerak baino txikiagoak izan.

### **13. artikulua.-Onuradunen baldintzak.**

1. Udal etxebizitza tasatu baten esleipenaren onuradun izate aldera, eskatzaileek dagokion deialdian ezarritako datan, jarraian zerrendatutako gutxieneko eskakizunak ase beharko dituzte:

- a) Adinez nagusi izatea edo emantzipatua.
- b) Etxebizitza beharra izatea.
- c) Azken bost urteetan, gutxienez hiru urtez Bermeon erroldatua egotea edo bertan izatea ohiko bizilekua.
- d) Gehienezko eta gutxieneko diru-sarrerak.
- e) Aurreko bi urteetan babes publikoko beste etxebizitza baten esleipenduna ez izatea.

2. Bizikidetzaren unitate bateko kideetarik inork ez dezake etxebizitzarik jabetzan eduki, azalera-eskubiderik, gozamen-eskubiderik edo jabetza soilik izan, deialdia egiteko akordioa edo ebazpena hartzen den dataz aurreko bi urteen barruan, horri egiten dio aipamen etxebizitza beharraren eskakizun edo baldintzak. Salbuespeneko edo ez ohiko egoerak, autonomia erkidegoko arautegiak babes ofizialeko etxebizitzaren gaian aurreikusitakoak izango dira.

3. Udal etxebizitza tasatuak alokairu erregimenean hartzeari bagagozkio, Bermeon ohiko bizilekua izatearen edo erroldatzearen eskakizuna, deialdia egin aurreko urte beteko aldirian luzatuko da gutxienez.

4. Hala era, deialdi publiko bi egin ondoren eta zerrendak birritan amaituta, promozino batetako etxebizitzarik geratuko balitz saltzeko, c), d) eta e) ataletako baldintzak kenduta, deialdi barria edo barriak egiteko aukerea izango da, beti be, erregimen orokorreko etxebizitza tasatuen kasuan. Erregimen bereziko etxebizitza tasatuen kasuan, aldiz, hirugarren deialdian eta hurrengokoetan, c) eta e) baldintza



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023  
11:21:21

DOCUMENTO: 20230849846

Fecha: 28/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0



soilik kendu ahal izango dira

### 3.- Etxebizitza eroslearen ohiko bizileku iraunkorra izatea

#### **14. artikulua.-Udal etxebizitza tasatuak okupatzeko betebeharra.**

1. Bermeoko Udal Etxebizitza Tasatuak beraien jabe edo maizterren ohiko bizileku iraunkorra izan behar dira, inolako arrazoirik ez da onartzen beste gizabanakoren bati lagatzeko, hutsik uzteko, bigarren egoitza gisa erabiltzeko edo bizilekutzako erabilera ez den beste ezertara bideratzeko, hots, araudiari eta honako tokiko ordenantzari jarraiki, berariazko xede duten horretarako ez den beste ezertan erabiltzeko.

2. Bermeoko Udalak goiko ahapaldian adierazitakoen betetze maila egiaztatze aldera jarduteko eskumena dauka, haiek ez betetzea suertatuko balitz, kontratua suntsitzea lekarke eta baita etxebizitzaren zein hari atxikitakoen jabe edo onuradun izaeraren galera ere. Guzti honek ez du kentzen, indarrean dagoen legediari jarraiki, egokiak izan daitezkeen beste ezein zehapeneko edo kalte-ordainketa ondorio erator ez daitezkeenik.

3. Lurzoruaren eta Hirigintzako 2006/2 Legearen laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat, jakinik, udal etxebizitza tasatu baten onuradun den ororen betebeharra dela, bere ohiko bizileku iraunkorra esleitu zaion etxebizitzan ezartzea eta finkatzea, betebeharr hori ez betetzea legezko arrazoia izango da, Udal Administrazioak etxebizitza desjabetzeko.

#### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENEGOA:** San Martin kalea 7 zenbakiko 1A etxebizitza tasatuaren gainean Bermeoko Udalak daukan eroslehentasun eskubidea erabiltzeari uko egitea.

**BIGARRENA:** Eusko Jaurlaritzak eroslehentasun eskubidea erabiltzeari uko egingo baleu, \*\*\*822\*\*E NAN zenbakidunari jakinarazotea, San Martin kalea 7 zenbakiko 1A etxebizitza tasatua saldu ahal izango daukala, beti ere Bermeoko Udal Etxebizitza Tasatuak arautzeko Udal Ordenantzak xedatutako baldintzak betetzen badira.

**BIGARRENA:** Salerosketa gauzatzen danean, salerosketa kontratua udalean aurkeztu beharko da baldintzak bete dirala egiaztatzeko.

### 3.- 154/2022 EPAIAZ BERRI EMATEA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0

#### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023  
11:21:21

DOCUMENTO: 20230849846

Fecha: 28/06/2023  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 154/2022 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"Fallo: Que, estimando el recurso contencioso administrativo interpuesto por* ██████████

██████████  
██████████  
██████████ *contra el acuerdo de 23 de octubre de 2019 del Jurado Territorial de Expropiación Forzosa de Bizkaia sobre justiprecio de finca 1177 (Txibitxiaga), del proyecto de ejecución para adquirir la propiedad de los terrenos del área a 46.1, sistema general de espacios libres del PGOU de Bermeo, debemos:*

*1º) Declarar la no conformidad a derecho de la resolución recurrida, anulándola y dejándola sin efecto.*

*2º) Fijar el justiprecio de la finca expropiada en la suma de 255.064,95 € incluido el premio de afección, más los intereses legales que correspondan.*

*3º) No hacer expesa imposición de costas."*

#### 4.- 155/2022 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 155/2022 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"Fallo: Que, estimando el recurso contencioso administrativo interpuesto por* ██████████

██████████  
██████████  
██████████ *contra el acuerdo de 23 de octubre de 2019 del Jurado Territorial de Expropiación Forzosa de Bizkaia sobre justiprecio de finca 1176 (Txibitxiaga), del proyecto de ejecución para adquirir la propiedad de los terrenos del área a 46.1, sistema general de espacios libres del PGOU de Bermeo, debemos:*

*1º) Declarar la no conformidad a derecho de la resolución recurrida, anulándola y dejándola sin efecto.*

*2º) Fijar el justiprecio de la finca expropiada en la suma de 217.815,90 €, incluido el premio de afección, más los intereses legales que correspondan.*

*3º) No hacer expesa imposición de costas."*

#### 5.- 230/2022 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 230/2022 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"Fallo: Que debemos estimar y estimamos el recurso presentado por* ██████████



[REDACTED]  
 [REDACTED]  
 [REDACTED] *ontra el Acuerdo dictado el 23 de octubre de 2019 por el Jurado Provincial de Expropiación Forzosa de Bizkaia mediante el que se estima parcialmente el recurso de reposición formulado contra el que, dictado el 13 de mayo anterior, determinaba el justiprecio correspondiente a la expropiación de la Finca nº 1170 (Txibitxiaga 1C) para la ejecución prevista por el PGOU del Sistema General de Espacios Libres en el Área 46.1 (expediente NR 44-2019) y, en consecuencia, anulándolo, se fija el justiprecio en las cantidades señaladas para dicha finca en el informe pericial presentado por la parte actora.*

*Sin costas."*

### 6.- 254/2022 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 254/2022 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"FALLO: Estimando parcialmente la demanda interpuesta por [REDACTED] sobre despido (4/10/2021) en cuanto a su petición subsidiaria declaro el impugnado como improcedente condenando a la empresa a que, en el plazo de cinco días, a partir de la notificación de esta resolución, opte entre readmitir a la trabajadora en las mismas condiciones que tenía con anterioridad al despido o a indemnizarle en cuantía de 7.405,80 euros, así como al abono de los salarios de tramitación devengados desde la fecha del despido hasta la notificación de esta resolución en caso de opción readmisoria (módulo de 74,81 euros/día) y con descuento, en este caso, de los salarios de los días en los que la demandante haya estado trabajando entre el despido y la readmisión.*

*Contra esta sentencia cabe recurso de suplicación ante la Sala de lo Social del Tribunal*

*Superior de Justicia del País Vasco, debiendo ser anunciado tal propósito mediante comparecencia o por escrito ante este Juzgado en el plazo de cinco días a contar desde su notificación, debiendo designar letrado/a o graduado/a social para su formalización."*

### 7.- 19/2023 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 19/2023 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"FALLO: Se estima el presente recurso, se anula el Decreto de Alcaldía-Presidencia 2022/439 por el que se resolvió el contrato derivado y decomiso de la fianza del acuerdo marco para el suministro de gas natural para los años 2020 y 2021 con la empresa Multienergía Verde SL y se reconoce el derecho de la misma a la devolución de la garantía.*

*Sin apelación por razón de la cuantía reclamada. Sin costas."*





**8.- 20/2023 DEKRETUAZ BERRIEMATEA.**

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 20/2023 dekretuaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"PARTE DISPOSITIVA:*

*1.- Se declara terminado por desistimiento el presente recurso interpuesto por el JUAN VICENTE ROMAN FRANCO contra la actuación administrativa referenciada. Sin costas.*

*2.- Una vez firme esta resolución, remítase testimonio de la misma a la Administración demandada, interesando acuse de recibo en el plazo de diez días, y unido éste a los autos, archívense los mismos."*

**9.- 139/2023 EPAIAZ BERRIEMATEA.**

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 139/2023 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

*"FALLO: Se desestima el presente recurso, reconociendo el ajuste a la legalidad del decreto de Alcaldía del Ayto de Bermeo, estableciendo una indemnización por importe de 5.697,75 €, más los intereses legales desde el momento de la reclamación en vía administrativa hasta la efectiva fecha de pago.*

*Sin imposición de costas a ninguna de las partes."*

**10.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRIEMOTEA.**

Ez da ezer adierazi.

**11.- ESKARI ETA ITAUNAK.**

Miren Gabantxok Txibitxiaga eta inguruko gune degradatuen diru-laguntzak direla eta esan du inguruko arkitektoarekin hitz egiten egon dela eta oso arduratuta dagoela datekin. Adierazi du Next Generation funtsak lortu ahal izateko arduratuta daudela eta lehen bai lehen pausoak eman beharko liratekeela. Kolar arteko terrenoen mantenua nork eraman behar duen zehaztea falta dela esan du. Lehentasuna ematea eskatu du.

Nadia Nemeh-k esan du lehentasuna emango zaiola.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/06/2023  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023  
11:21:21

DOCUMENTO: 20230849846

Datea: 28/06/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia


CSV: 07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0



fedee ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzailea eta data*

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E7000CF7B600U3E7F2C8D4C0</p>	<p style="text-align: center;"><b>Sinatua eta data</b></p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/06/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/06/2023 11:21:21</p>	<p>DOCUMENTO: 20230849846</p> <p>Fecha: 28/06/2023</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidaidea: Erregistro nagusia</p>
--	--	--	--

